

406.ZENBAKIA-AZKOITIKO HERRI ALDIZKARIA-2021EKO OTSAILA




MAXIXATZEN



erreforma integralak

dica.



URRATEGI
INTERIORISMO
borna d'asina

www.urrategiinteriorismo.com
Arraguala 27 Arretxe 9
20600 Eibar 20730 Azpeitia

Zure ametsak egi bihurtzen lagunduko dizugu




943 16 98 78

info@alberdi-inmobiliaria.com
Trenbidearen Zumardia, 3 AZKOITIA

PAUSOZ PAUSO ZURE AMETSARI BIDEA EGITEN.

- Lehenengo bisitan saldu berri dugu etxebizitza hau.
- Alde batetik, kokapen eroso eta bista ederrak ditu etxebizitzak berak, eta bestetik eraberritze proiektu pertsonalizatua egin diogu guk geuk.



Eskaintza osorako bisita ozazu: www.alberdi-inmobiliaria.com



MAXIXATZEN 406

2021EKO OTSAILA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:

IHINTZA ELUSTONDO

Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Aitziber Arzallus, *Aurten bai?*
6 **Hitz bitan** Juan Manuel Zaldibia, *bidaia agentziako langilea*
8 **Izpiak eta hizkiak** Ainhoa Beristain, *Emergentziako plana*
10 **Iritzia** Joseba Epelde Bereziartua, *Ez nuen COVIDaz idatzi nahi*
Yolanda Larrañaga Arrieta, *Zergatik?*
12 **Erreportajea** *Ahantzutakoen, isildutakoen ahotsean*
18 **Bazkidetza eta Zakelmari**
19 **Iritzi grafikoa** Mikel Triviño
20 **Elkarrizketa** Rina Cabeza, *transsexuala*
24 **Erretratua** Mikel Uria, *sukaldaria*
30 **Plazan bazan**
32 **Iritzia** Jose Ramon Aranbarri, *Covid-19aren txertoa*
34 **Akordatzan** Nerea Zubizarreta, *Egunean hogeita bost orduz, astean zortzi egunez*
38 **Klik!** Iturriak
44 **Kultura** Iñigo Antsorregi, *Herriko talentuak*
- 46 **Iritzia** Ixabel Jauregi Alberdi, *Hitzaren gozoa*
Bertsoa paperean

MAXIXATZEN



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-85 36 17
maxixatzen@maxixatzen.eus
www.maxixatzen.eus

Erredaktoreburua

Nerea Uranga
Erredaktore taldea:
Aitziber Arzallus
Andoni Elduaen Soraluze
Mailo Olarzábal
Nerea Uranga

Diseinu arduradunak

Iñaki Martínez
Ibárra Iraeta
Publizitate arduraduna
Egoitz Azkoitia
Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Ainhoa Beristain

Joseba Epelde Bereziartua
Yolanda Larrañaga Arrieta
Mikel Triviño
Jose Ramon Aranbarri
Iñigo Antsorregi Díez
Ixabel Jauregi Alberdi
Gorka Larrañaga

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-706/97
ISSN: 1137-8891
Tirada: 850 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



AZKOITIA
Udala





artelan
TXE.O. ARANSO

Marraskia
Olio-pintura
Akuarela
Pastela-pintura
Ikatx-marraskia
Bustina
Plastilina
Eskulana
Floreaa Berri, 1
Tel.: 943-85 18 41

EGUZKI

belardenda
dietetika
kosmetika naturala

Kale Nagusia 67 943-50 34 47
Urbiate 9 bis 943-15 00 23

**AZKOITIA
AZPEITIA**

JARRI
HEMEN
ZURE
IRAGARKIA

br

arkitekturaestudioa
santakara kalea 35 | 943083487
www.brarkitektura.com

Web proiektuak
Software ingeniariatza

elkarmedia()

info@elkarmedia.eus
943-85 08 74

e t k

Informatika Zerbitzuak
943-02 63 29
www.etkinformatika.com

PB sport

Itziarondo, 7 • 943-02 53 88
Kale Nagusia, 87 • 943-85 20 98
AZKOITIA

KATTAGORRI ARTEA

TALLER ARTISTIKOAK

GOIZ ETA ARRATSALDEZ: gazte eta helduentzat

kattagorriarte@gmail.com

674335988

Zuatzola kalea, 2. Azkoitia

AZKEN SALMENTAK

ARANGARRI

01. OHIKO ETXEBIZITZA

02. AHOLKULARITZA

03. INBERTSIOAK

Aurten bai?



AITZIBER ARZALLUS

36 urte ditut, ama naiz eta parrandazalea naiz. Parrandazale handia. Etxerako ordurik ikusten ez duten horietakoa. Zer egingo diogu ba? Hala izan da beti, eta hala izango da. Batzuek ez duzue ulertuko, baina badakit beste batzuek baietz. Horretan ere pertsona klaseak baitaude. Ez hobeak edo okerragoak; diferenteak. Batzuek parranda behar dute beste batzuek kirola edo lana egitea behar duten bezala. Eta ni horietakoa naiz. Lagunak, katxondeoa, hizketaldi interesgarriak, zentzu handirik gabekoak, barreak, malkoak, musika, dantza saioak, besarkadak, muxuak, beroa, albokoaren izerdia, zeurea... Saltsa horrek bizipoza ematen dit, eta biharamun eta guzti bada ere, asteari beste era batera ekiteko indarra.

Baina etxean gelditzen ere badakit. Egon dira oso gutxi atera naizen boladak. 23 urtetik 30era, denera, ez nituen hamar parranda botako, 23 urterekin ama izan nintzelako, eta 27rekin berriz. Ez daukat ez eginaren damurik. Garaian garaikoa, eta orduan banituen parranda baino zeregin hobeak.

2020a ere lehorra joan da, oso lehorra. Badakigu zergatik. Etxean gelditzeko agindu ziguten, eta gelditu naiz. Zertarako? Ia urtebete pasatu da eta hasierako lekuan gaude. Edo ez, okerrago gaude, erre-erre eginda. Eta txarrena da gauzek ez dutela aldatzeko itxurarik. Agian oso inozoa naizelako, baina orain dela gutxira arte baneukan honi buelta emango genion esperantza. Ez berehala, baina bai laster. 2021ak beste kolore bat izango zuela sinetsi nahi nuen. Baina urtea nola hasi dugun ikusteak itxaropen guztiak itzali dizkit. Hilabete beltzak ditugu aurretik, beltzak eta tristeak. Datuengatik ere badiot, baina batez ere diot hamaikagarrenez ezarri dizkiguten murrizketengatik, horietako asko zentzu handirik gabekoak. Txertoak ekarri behar omen zuen argia. Bada, poliki-poliki hasi dira dosi batzuk iristen, eta horiekin batera azaleratu da zenbaiten lotsagabekeria. Ez dut ukatzen egoeraren larritasuna, kutsatuen eta hildakoen kopuruak direnak direlako; baina dena horren gaizki kudeatzea ere...

Eta niri kostatzen ari bazait, zenbat ari ote zaie kostatzen 20 urteen bueltan dabiltzan gazteei? Adin hori nuenean egoera honek harrapatu banindu... Haien azalean jartzen saiatzen naiz, eta pentsatze hutsak ito egiten nau. Lagunekin kalean lasai ibiltzerik ez, lokalik ez, tabernarik ez, parrandarik ez eta gurasoen etxetik alde egiteko dirurik ez. Eta bitartean, barrua sutan, mundua jateko gosez. 20 urte dituzunean, urtebete mundu bat baita.

Iritsiko dira garai hobeak, baina noiz? Zuek zer diozue, 2021a bukatzerako izango ote dugu parranda eder bat botatzeko modurik? ■■■

**NIRI KOSTATZEN ARI
BAZAIT, ZENBAT ARI
OTE ZAIE KOSTATZEN
20 URTEEN
BUELTAKOEI?**

Juan Manuel Zaldibia: "Zailtasun asko ditugu bidaia agentzietan, denak ez esateagatik"

TESTUA ETA ARGAZKIA: ANDONI ELDUAIEN

Juan Manuel Zaldibia (Tolosa, 1963) bidaia agentziako langileak 30 urte daramatza Azkoitian bizitzen, eta beste horrenbeste egin ditu bidaia agentzien munduan lanean. Haren arabera, enprekin lan egiten dutelako ari dira egiten aurre azken hilabetei.

Bidaiak etenda, zein da zuen egoera?

Lurrikara handia izan da gure sektorearentzako. Europako hegaldiak-eta bertan behera gelditu zirenean nabaritu genuen lehen eragina; bien bitartean, Txinako konpainiek Europara hegaldiak egiten jarraitzen zuten. Gaixotasuna Italiara iritsi zenean, beste egoera batean sartu ginen; shock bat izan da orduz geroztik.

Zein izan dira zuen lanak azken hilabeteetan?

Ehunka bidaia genituen kontratatuta, eta horiek itzuli eta ezeztatu behar izan ditugu. Martxoan alarma egoeran sartu ginenean, inork ez zekien zer egin. Hegaldi konpainiek diru itzultzeak blokeatu zituzten, deskapitalizatzeko arriskua ikusi zutelako. Hotelak mundu guztian ditugu kontratatuta, eta Herbeheretako hotelek, adibidez, ez zuten dirurik itzuli nahi.

Bestelako lana egin behar izan duzue, beraz.

Ez gara lanik gabe gelditu, baina bi hilabete oso gogorrak izan ditugu gauzak lehengora zuzentzen ahalegintzeko. %90a konponduta dugu; bezero batzuk ulertu dituzte kontu horiek, baina beste batzuk ez. Hori dena kudeatu behar izan dugu. Bidaia hornitzaileen arabera, oraindik ez dakigu kasu batzuk nola bideratu, eta batzuetan galera onartu behar izan dugu, nahiz eta gu ez izan errudunak.

Batez beste, zenbat bidaiatu da aurretik?

Iaz ehun bidaia egin baziren, aurretik hamar egin dira. Enprekin lan egiten dugu, zorte hori dugu, eta batzuk bidaiatzen jarraitu dute; halere, oso mugatuta eta baldintza askorekin egin dituzte bidaia horiek. Egun enprekin ez bada lan egiten, ez du zentzurik agentzia irekita edukitzea. Horrek uzten digu oraindik ere lana egiten, eta lantaldean hiru pertsona egoten.

Zuen lana mugikortasun neurriek mugatu dute. Eskuak lotuta sentitzen al dituzue?

Duela aste batzuk bidaiatzeko aukera zegoen, orain ez; egoera horretan %100ean gaude mugatuta. Gainera, guztia ez dago gure gain. Lufthansa konpainiak, adibidez, Bilbotik Frankfurtera joateko zuzeneko hiru edo lau hegaldi izaten zituen lehen; orain bakarra du edo ez du hegaldirik. Konpainien operatiboak %80-85 jaitsi dira Bilbon. Horrez gain, herrialde batetik bestera mugitzeko PCR probak egin behar dira. Zailtasun asko ditugu bidaia agentzietan, guztiak ez esateagatik.

Oro har, azkoitiarrak asko bidaiatzekoak al dira?

Gero eta gehiago bidaiatzen da, gero eta errazago gainera. Era berean, gero eta immigrazio handiagoa dago, eta horiek ere beren herrietara itzuli nahi izaten dute. Gelditu ezin den mugimendua da bidaiatzearena.

Zein dira herritarren tokirik kuttunenak?

Bidaiari bakoitzak bere egoeraren arabera egokitzen du bidaia. Filipinetara jende askok egin zuen bidaia 2019an. Familiak bidaia lasaia goak nahi dituzte eta hondartza nahi izaten dute. Indonesiara bidaia asko antolatutakoak gara, baita AEBetara ere.

Zein dira egungo eta lehengo bidaiatzeko ohituren desberdintasunak?

Telefono deiak edo mezu elektronikoak jasotzen ditugu orain. Jendeari bidaia bere erara egitea gustatzen zaio, mugimendua gehiegi mugatu gabe. Bidaia nora egiten den izan behar da kontuan, eta herrialdearen arabera egokitu gero bezeroaren nahiak. Familia batek bidaia ia guztia lotuta atera nahi du; gazteek, aldiz, gutxienezkoa.

Laster bidaiatzeko modua izango dela uste al duzu?


Txertoak koronabirusarekin amaituko duelakoan nago. Ez dakit nola kudeatuko duten, baina pertsona txertatua izan den ikusteko erremintaren bat sortuko dutelakoan nago. Martxan ikusten dut gizartea urtearen bigarren erditik aurrera; ez urruneko bidaiak egiten, baina gutxienez martxan izango da. ■■■



Emergentziazko planak

ARGAZKIA: AINHOA BERISTAIN

*Gehiegi luzatzen diren,
salbuespen egoeretarako,
emergentziazko planak.
Anari - Orfidentalak. ■■■*







Ez nuen COVIDaz idatzi nahi

Jende guztia ari zen (ari da) jardun eta jardun, albiste-gietan, iritzi artikuluetan, erreportajeetan. Zertarako ahalegindu, hortaz, alderdi sinesgaitzenetik ere jorratuta zegoen gai bat lardaskatzen, jakinik lehendik nahikoa aztertuta zegoela eta beste batzuek zehatzago eta aproposago esandakoa errepikatzea besterik ez nuela egingo? Zertarako hitz egin esateko nituen gauza gehienek atseginetik gutxi edo ia batere ez bazuten? Horretan nengoen, mundu honetatik deskonektatu nahian, autismoak edo alzheimerak jota banengo bezala; horrela nengoen, lagun batek "idatzi beharko duk ba zeozer koronabirusari buruz" esanda xaxatu ninduen arte, edo agian neuk akuilatu nuen neure burua, eta ahaztu egin zait.

Bitxia da. COVIDa aipatu orduko, txaloak jartzen dizkit aurrean irudimenak. Martxoko eta apirileko txalo haiek. Osasun langileei iluntzeko zortzietan jotzen genizkienak. Litekeena da beste lanbide batzuek haienak adina edo gehiago ere merezi izana, baina langile sanitarioak aukeratu genituen txalo-saiorako. Hori bai, medikuak eta erizainak administrari edo erizain laguntzaileak eta zeladoreak baino gehiago, hor ere klaseak baitaude. Itxialdiaren errutina

BITXIA DA. COVIDA AIPATU ORDUKO, TXALOAK JARTZEN DIZKIT AURREAN IRUDIMENAK

hausteko? Etxeko hurrekin zerbait entretenigarria egiteko? Benetan merezi zutela uste genuelako? Aurreko hiru arrazoiak batera uztartzeko? Jakizu. Gero, txalo haietaz gogoratu izan naiz hauts daitezkeen zentzuzko arau guztiak urratu ditugun bakoitzean, politikariak eta herritarrok osasungintzako adituen gomendioei jaramon handirik egin ez diegunean, infantilismoa gure jokaeren sinonimo bihurtu den hainbatetan; eta nirekin batera osasun langile bat baino gehiago ere gogoratuko zen, ziur.

Txaloak joz geure buruak zuritzen ahalegintzeaz gain, adinekoak beren egoitzetan edo etxeetan sartu ditugu, gatibu. Hil ez diren askok atzerabiderik ez duten dementziak edo beste-lako gaixotasunak garatu dituzte, gu herriko eta

HAUXE BAI JENEROA!



Gabonetako festa "sakratuak" ospatu gabe bizi ezin ginelako. Batzuek gogoak emandako guztia egin nahi genuelako, beste batzuei, zaharrenei, oinarritzkoa egitea ukatu diegu. Ondorioa: bidean geratu ez diren asko lehen baino okerrago daude, askoz okerrago, gure kapritxoengatik. Gauza izan gara geure gurasoen edo aitona-amonon bizitza (eta geurea, jakina) arriskuan jartzeko parranda ziztrin bat egiteagatik, mahai baten inguruan otordu batean elkartzeagatik.

Eta hildakoak. Zein erraza den joan den astean 40, 45 edo 48 hil direla irratian entzutea, baldin ospitalera joan beharrik izan ez badugu edo gure familiakoren bat betiko agurtzeko aukera kendu ez bazaigu. Zein axolagabea eta maltzurra, aldi berean, hildako kopuru hori

onargarritzat hartzea osasun sistema geldiarazi beharra ez badago, edota gure ospitaleak, bizimodua eta ekonomia kolapsatzen ez badira. Noski, albo-kalteak ez dira benetako kaltegeu ukitzen ez gaituzten bitartean. Krudela da hotzean erreparatzen badiogu; ez nuke jakin nahi zer sentitzen duen bere azalean bizi beharra egokitu zaion batek.

Horregatik ez nuen koronabirusaz idatzi nahi, nire alderdirik ezkorrena azaleratzen zaidalako gizakiok izan dugun jokabideaz pentsatzen hasten naizenean. Litekeena baita gehienok zentzuz eta gizalegez jokatu izana eta, orban bakar bat duen soineko edo alkandora batean bezala, salbuespenak osotasunaren garbitasunaz jabetzen ez lagatzea. Beharbada horrela izango da. Beharbada. ■

ERREMATEA



**YOLANDA LARRAÑAGA
ARRIETA**

Zergatik?

Zergatik begiraten didazu gaizki? Munduaren erdiak ez dio egoki begiratzeko beste erdiari. Milaka arrazoiengatik, noski. Batzuetan, ideologia politiko desberdina edukitzea nahikoa da; beste batzuetan, joera sexual desberdina duelako, beste hizkuntza, erlijio edo kultura bat duelako... Ingurura begirata, milaka adibide aurkitu ditzakezue segur aski. Guztiok gurea dela onena uste ohi dugu, desberdin pentsatzen edo sentitzen duen hori dagoela oker; ni naizela egoki pentsatzen eta jokatzeko duena, nirea dela arrazoi osoa eta horregatik eskubidea dudala bestea mespretxatzeko, gutxiesteko.

Baina... beti ni ote naiz arrazoiak duena? Pentsatzen eta sentitzen dudana bezala sentitu behar du munduaren beste erdiak errespetatua sentitzeko? Ez ote dira libreak ideologia, sexu aukera, hizkuntza...?

Inoiz ez zarete penatuta geratu norbaiten errespetua ez duzelako jaso, ez zaretelako ongi etorriak izan talde desberdin batean edo gaizki begiratu dizutelako? Une batez, gure barrena begiratzeko nahiko nuke. Kalte edo goibeltasun hori ez badugu jaso nahi, ez dezatela besteek ere jaso. Errespetuarekin eta ongi nahiarekin, mundu zoriontsuago bat lor dezakegulako. Elkarrekin borrokatu beharrean, elkar ulertu gaitezke. ■





Ahanztutakoen, isildutakoen ahotsean

30 urteko su-etena hautsizat jo zuen Mendebaldeko Sahararen askatasunaren aldeko Fronte Polisarioak jazo azaroaren 13an. Azkoitian bizi diren Saharako komunitateko kideen arabera, “pazientzia agortu” zaie. “Saharako herria laguntza humanitarioari esker bizi da. Marokoren zapalkuntza gogortzen joan da lurralde okupatuan, errefuxiatuak desertuaren desertuan bizi dira Aljerian, eta Minurso Nazio Batuen Erakundeak ez du autodeterminazio agindua gauzatu”, salatu dute. Bizi dituzten baldintza gogorrei, gainera, pandemiak ere eragin die.

Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **Nerea Uranga eta utzitakoak**.

Suminduta daude. 30 urteko su-etenaren ostean, nazioarteak ez die kasurik egin Saharako herriaren eskariei; ez du agindutakoa bete. Bitartean, Marokoren jazarpena gogortzen joan da. “Pazientzia agortu” zaie sahararrei, eta Marokoren kontrako gerrari ekin diote. Iazko azaroaren 13an, Ibrahim Ghali Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoko presidentearen erabakiz, Fronte Polisarioak hautsitzat jo zuen Marokorekin 1991n sinatu zuen su-etena, eta gerra egoera ezarri zuen. Gertaera horren aurrean, beste hainbat tokitan bezalaxe, Azkoitian bizi diren sahararrek protesta egin zuten joan den azaroaren 15ean. Behingoz autodeterminazio erreferenduma gauzatzeko neurriak hartzeko eta egindako promesa betetzeko eskatu zioten Minurso NBE Nazio Batuen Erakundeari –Mendebaldeko Saharan erreferenduma antolatzeko Nazio Batuen misioa–; Minurso 1991n eratu zuten horretarako.

Ahmed Ziad (Villa Cisneros, Mendebaldeko Sahara, 1961), Bairouk Mojtar (Um-Edequen, Aaiun, Mendebaldeko Sahara, 1961), Embarca Bellaher (Argub, Mendebaldeko Sahara, 1969) eta Salha Cheg (Auserd, Mendebaldeko Sahara, 1975) Azkoitiko bizilagunak dira, eta lau sahararren ahotsek ere aldarri dute autodeterminazio erreferenduma eta beren herriaren askatasuna.

Saharako herria hirutan banatuta dago gaur egun: Mendebaldeko Saharako lurralde okupatueta, Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpalekueta eta diasporan bizi dira sahararrak. Azken horretako kideak dira elkarriketatutako laurak, eta sahararrek bizi duten “egoera ankerra” ezagutarazteko, beren lurraldean aske bizitzeko duten eskubidea aldarrikatzeko eta beren herritarrei “ahalik eta laguntza handiena” helarazteko etorri dira Euskal Herrira, lanera eta bizitzera.

Iazko azaroaren erdialdean, tentsio militarra areagotu zen Guergueraten (Mendebaldeko Saharako herrialde okupatuaren eta Mauritaniaren arteko muga), Maroko sartu zenean. Toki hartan, urriaren bukaeratik protestan ari ziren hainbat manifestari saharar, kontrolpeko Guerguerateko igarobidea nazioarteko legediaren kontrakoa dela salatuz eta Mendebaldeko Saharako autodeterminazio erreferenduma eskatuz. “Marokok berak irekitako arrakala zeharkatu eta han protestan zeuden zibilak erasotu zituen, haien haimak erre zituen. Fronte Polisarioak abisua emanda zuen su-etena hautsiko zuela saharar zibilen kontrako edozein erasoren aurrean. Orduan hasi zen dena: gerra”, dio Ziadek.

Desertuaren desertuan

“Mendebaldeko Sahara Espainiaren kolonia zela jaio nintzen ni; Espainiak 53. probintzia zen orduan. Familiarekin Villa Cisneros herrian bizi nintzen, eta OHOk seigarren mailara arteko ikasketak egin nituen han. Garai hartan, [Francisco] Franco diktadorea hilzorian zegoen, eta Juan Carlos I.a Espainiako erregea zenak, gure lurraldea opari eman zion Marokori. Orduan hasi zen inbasioa eta sahararron Aljeriarako exodoa. Marokoren bonbardaketa artean irten genuen gure herrialdetik, saharar herriaren aurkako sarraskiaren hasiera izan zen hura”, gogoratu du bere haurtzaroa Ziadek. “Gero, Aljerian, bizimodu berri bat hasi zen guretzako, kanpalekuak muntatu behar izan genituen, eta han jarri ginen bizitzen. Nolabait antolatu ginen, eta Fronte




Ezkerretik eskuinera, Bairouk Mojtar, Ahmed Ziad, Salha Cheg eta Embarca Bellaheer.

Polisarioak eskolak jarri zituen martxan. Ikasketekin jarraitzeko aukera izan genezan, babesten gintuzten herrialdeek —Aljeria, Kuba, Libia...— haien eskoletara eraman gintuzten. Nik espainolez hitz egiten nuenez, Kubara eraman ninduten ikastera, eta sei urte egin nituen han. Toki askotan Kubari buruz gaizki hitz egiten da, baina guk haren babesari sentitu dugu. Handik gero kanpalekuek itzuli nintzen”. Egun, Azkoitia bizi da Ziad, baina seme bat izan ezik, gainontzeko familia guztia Tindufeko errefuxiatuen kanpalekuek du. “18 urteko semea nirekin bizi da orain, baina emaztearekin kanpalekuek bizi dira beste bi semeak eta alaba. Joan-etorrian ibiltzen naiz ni, eta azken orain dela urtebete izan nintzen han, iazko urtarrean; ordutik, anai eta arreba bana hil zaizkit han. Bananduta bizitzea oso zaila da, baina familia mantentzeko hemen lana egin beharra daukat. Izan ere, sahararrek egoera oso gogorra jasan behar dute, desertuaren desertuan bizi dira, laguntza humanitarioari esker”.

Mojtar ere Mendebaldeko Sahara Espainiaren kolonia zenean jaio zen, baina haurra zela, Marokoren inbasioaren ondoren, Tindufeko kanpalekuek ihes egin behar izan zuen. Kuban, industria ingeniartzako ikasketak egin zituen. Haiek bukatutakoan itzuli zen errefuxiatuen kanpalekuek, eta irakasle aritu zen. Era berean, Fronte Polisarioarekin gerran ibilitakoa da. “Baina 1991n Minurso sortu zuten, Mendebaldeko Saharan erreferenduma antolatzeko. Orduan, Fronte Polisarioak Marokorekin su-etena sinatu zuen, eta armak utzi genituen. Bakea hasi zenean, Espainiara joateko erabakia hartu nuen, lan egin eta kanpalekuek laguntza bideratzeko”. Aurrena Alacantara (Herrialde Katalanak) joan zen lanera, eta gero, Jaenera (Andaluzia, Espainia). “Batetik bestera ibili nintzen; lana non, hara mugituz. 2013. urtean etorri nintzen Azkoitia, eta egun, arrainaren sasoian, Zumaiako lantoki batean egiten dut lana; gauez eta hamabi orduz. Baina gustura nago”. Mojtarren familia Tindufen bizi da; ama, anai-arrebak eta hiru seme-alabak.

Bellaheerrek 7-8 urte zituela ihes egin zuen Aljeriako kanpalekuek. Gero, Ziadek eta Mojtarrek bezalaxe, Kubara ikastera joateko aukera izan zuen; irakasle ikasketak egin zituen han. “1991n itzuli nintzen Kubatik kanpalekuek, hain justu, armak utzi eta erreferendumaren kontua agindu zuten urtean. Pozik geunden su-etena adostu zelako eta



erreferenduma egiteko aukera izango genuelako. Mendebaldeko Saharan herri gisa bizitzeko aukera sortu zitzaigula sinetsi genuen orduan. Garai hartatik, ordea, itxoiten egon gara, eta gatazkari ez zaio irtenbiderik eman. Mendebaldeko Sahara lurralde aberatsa da, eta han libre bizitzeko aukera izango bagenu, eroso bizitzeko eta beharra duten beste batzuei laguntzeko adina izango genuke. Baina, pentsa, saharar herria bizi bada, laguntza humanitarioari esker bizi da egun. Ikaragarria da. Kanpalekuetako bizi baldintzak izugarri txarrak dira, han ez dago ezer; txoririk ere ez da bizi leku hartan!”, azaldu du Bellaherrek. 2012an etorri zen Euskal Herrira bizitzera. “Ikasketak ditugunok saharar herriaren kausarako ahal duguna egiten ari gara diasporatik. Maroko Sahararekiko egiten ari den zapalkuntzaren, Espainiaren arduragabekeriaren eta Frantziaren konplizitatearen berri eman beharra dago nazioartean”, aldarrikatu du.

Chegek seme-alabentzako etorkizun eta bizi baldintza hobeak bilatzeko utzi zituen Tindufeko kanpalekuak. Aljerian egin zituen ikasketak, eta arabierako irakaslea da Cheg. “Kanpalekuetan ez dut lanik, eta bizi baldintzak oso-oso kaskarrak dira han. Ez dut nahi nire seme-alabek guk pasatu duguna pasatzea, etorkizun hobe bat opa diet, eta horregatik etorri ginen Azkoitira”. Bost seme-alaba ditu, eta horietako bat kanpalekuetan bizi da; ezin izan du berarekin bizitzera ekarri. “Paper kontuengatik ezin da gurekin hemen bizi, 3 urte zituela utzi behar izan nuen han”, dio saminez.

Autodefentsarako, gerrara

Su-etena bertan behera utzi ondoren, Marokoren kontrako gerrara joan dira kanpalekuetan eta lurralde okupatuan bizi diren gizon-emakume asko. “Sasoiz dauden gizon gehienak joan dira gerrako frontera, baita boluntario agertu diren emakumeak ere”, azaldu dute Azkoitian bizi diren lau sahararrek. Polisarioak frontera deituz gero, Ziad, Mojtar eta Bellaher prest daude armak hartzeko. “Giza eskubideez eta demokraziaz asko hitz egiten da munduan, baina errealitatean ez dago horrelakorik. Aberastasuna non, herrialde guztiek hara jotzen dute etekin ekonomikoaren bila. Giza eskubideen izenean, herri asko suntsitu dituzte”, uste du Ziadek.

**"SAHARAR HERRIA
BIZI BADA, LAGUNTZA
HUMANITARIOARI
ESKER BIZI DA
GAUR EGUN"**

**"GIZA ESKUBIDEEZ ETA
DEMOKRAZIAZ ASKO
HITZ EGITEN DA, BAINA
ERREALITATEAN EZ
DAGO HORRELAKORIK"**



Saharako errefuxiatuen Tindufeko kanpalekua.

IAZKO MARTXOAN BILDUTAKO JANARIA URTARRILEAN JASO DUTE KANPALEKUETAN

"MAROKOK BERE GILTZAK ERAKUSTEN DITUENEAN, BESTE HERRIALDEAK ISILARAZTEN DITU"

Sahararrak beren lurraldeagatik bizitza emateko prest daude, Mojtarren arabera: "Dena galduta daukagu, gaur-gaurkoz ez daukagu ezer; 45 urte baino gehiago dira dena kendu zigutela". Ziaden ustez, Marokok ez zuen espero 20-22 urteko sahararrak Fronte Polisarioarekin gerrara joateko prest egongo zirenik: "Baina joan dira, eta haien amek irrintziekin eta txaloekin agurtu dituzte gerrara joan diren seme-alabak".

Saharako herria baketsua dela diote, haien nahia ez dela gerra egitea, baina beren eskubideak eta lurraldea defendatzeko armak hartzea beste erremediorik ez dutela dio Bellaherrek. "Saharako herria oso egoera txarrean bizi eta oso gaizki pasatzen ari da. Herrialde boteretsuenak Maroko babesten eta laguntzen ari dira, eta gure herria abandonatuta daukate. Gatazka honetan inork pazientzia izan badu, gu izan gara".

Sahararrek bizi duten egoera ezkutatu egin izan dutela salatu dute laurak. Haien ustez, Maroko arduratzen da giza eskubideen urraketa, zapalkuntza eta gatazka isilpean izan daitezela. Hala kontatu du Mojtarrak: "Marokok blokeo mediatikoa dauka ezarrita. Espainiako Estatuan ez dute Sahara aipatu ere egiten, ez da hango gatazkaz informatzen, ez da azaltzen sahararrek bizi duten bazterkeria, tortura... Hori horrela izan dadin, Marokok dauka giltza. Espainiak eta Espainiako hainbat enpresak interes ekonomikoak dituzte Marokon. Gainera, Espainiak Saharako kausa babesteko keinu bat egin orduko, Marokok Ceutako eta Melillako kontuaren giltza ateratzen du edota migranteen olatuak sorrarazten ditu; hau da, Afrikako beste lurralde batzuetako herritarrak Marokora erakartzen ditu, gero handik Espainiara bultzarazteko. Marokok bere giltzak erakusten dituenean, denak isilarazten ditu, eta sahararrok gara horren biktima".

Fronte Polisarioa gerran dagoela ere ezkutuan du Marokok, Ziaden arabera. "Gerran dago Sahara, baina ez dute horren berri ematen. Gerran hildako marokoarren senideei ere ez diete uzten gerran hil direla aitortzen. Maltzur, azeri, jokutzen du Marokok lurralde okupatuetan". Espainia, berriz, Marokoren konplizea dela salatu dute laurak. "Giza eskubideak urratzen dituen herrialde bat babesten ari da Espainia, eta armak ematen dizkio Marokoko armadari", kritikatu du Ziadek.

Elkartasuna eta laguntza

Ziad, Mojtarrak, Bellaher eta Cheg beren herria eta Saharako herritarrak laguntzeko ahaleaginean ari dira, Azkoitia bildutako apurra kanpalekuetara bidaliz. Beren artean asko laguntzen direla diote, haien izateko moduaren ezaugarri dela hori. Ziaden hitzetan, haiek beren herrikiderik ez dute uzten "gosez edota kalean".

Sahararrak izan gabe, badira herri horri laguntzen dioten euskal herritarrak ere. Lurdes Alberdi (Azpeitia, 1966) eta Irati Lizarralde (Azkoitia, 2004) ama-alabak eta Garazi Salegi (Azkoitia, 1986) adi jarraitzen ari dira Saharako kanpalekuetako egoera eta gatazka Azkoititik. Alberdiren eta Salegiren familiek, Oporrak Bakean egitasmoaren bidez, haur saharar bana ekarri zuten 2019ko udan beren etxeetara; Alberdiren familiarekin igaro zuen uda Aichatuk, eta Salegirenarekin Nayatek. "Saharar herriarekiko lotura Aichatu etxera ekarri genuenen sortu zen. Ordutik, Saharari buruzko informazioa gertutik jarraitzen dugu", azaldu du Alberdik. Lotura horrek eta jakin-minak bultzatuta, Lizarralde Juventud Activa Saharaui (Saharar Gazteria Aktiboa) elkarteko kide ere egin da.

Saharako herriak laguntza eta elkartasun premia handia du, eta hori bideratzeko, Euskal Herritik ahalegina egin beharra dagoela diote hiru azkoitiarrek. Zumaiako Darahli elkartearen laguntzarekin, Azkoititik beren aletxoak jartzeko ahalegina egiten ari dira.

Saharako egoera konpontzeko politikak sustatu behar direla aldarrikatu du Salegi: “Politikariek eta boterean daudenek hasi behar dute neurriak hartzen eta presioa egiten Saharako egoera konpontzeko. Espainiak eragin beharra dauka horretan, bestela honek ez dauka inolako konponbiderik. Espainiako Gobernuak egin behar du Saharako herriaren duintasunaren eta autodeterminazio eskubidearen alde, eta aurre egin behar die Marokori eta Frantziari”.

COVID-19aren izurriteak ere eragin du kanpalekuetan, okerrerako, gainera. Kanpotik jasotzen zuten laguntza humanitarioa murriztu egin zaie, aurreko urteetan baino elikagai eta botika gutxiago iritsi zaizkie. Errefuxiatu sahararrek uda eta udazken “oso gogorak” igaro dituztela azaldu du Alberdik: “Laguntza humanitariorik ez dute jaso”.

Iazko martxoaren hasieran saharar errefuxiatuen kanpalekuetara bidaltzeko janaria eta produktuak bildu zituzten Azkoitian. Orduan bildutako guztia urtarilean jaso zuten kanpalekuetan. “Hilabete hauetan guztietan, Alacanten [Herrialde Katalanak] edo auskalo non, kamioiak geldirik izan dituzte. Kanpalekuko gure familiak hala zioen: ‘Ez dakigu zer jan beharko dugun, hondarra edo?’”, salatu du Alberdik.

Saharar herriari laguntzeko beste bilketa bat ere egin zuten herrian joan den udazkenean. Azken horretan, eskolarako materiala, arropa, gel hidroalkoholikoa eta maskarak jaso zituzten, baita beren hango familiarentzako poltsa bana ere. “Bildutako guztia hor dago, ezin bidalita”, diote kezkatuta.

Oztopoak oztopo, Mendebaldeko Sahara libre izan dadin ahalegin guztiak egiteko prest daude Azkoitian bizi diren sahararrak. Haiei laguntzeko eskuzabalik dira, berriz, kanpalekuetan “etxeko txikiak” dituzten Azkoitiko bi familiak. Bellaherrek honela dio: “Gure berezko lurraldean, Mendebaldeko Saharan, aske biziko banintz, ez nuke handik alde egingo laguntza eta elkartasun bila”. ■■■



Lurdes Alberdi, Irati Lizarralde eta Garazi Salegi.





Zita berezi bat duzu?

Dotore jartzeko garaia da.

Garbiketa eta lle apa indegi zerbitzua
daukagu Kimubat Gardenean, Azpeitia.

Eskatu zure hitzordua!





KIMUBAT
— GARDEN —

ESKATU ZURE HITZORDUA
943 15 00 85 | kimubat@kimubat.eus

Egin zaitez bazkide!

Urtean 25 euro ordainduta proiektu honetako kide zuzena izango zara. Hilero herri aldizkaria etxean jasoko duzu eta bestelako hainbat abantaila izango dituzu.



#IzanMaxixatzaile

Maxixatzen proiektu anitza, parte hartzailea eta irekia da. Independentea, autonomoa, zabala eta herrikoia. Herri proiektu bat da gurea. Topagune eta ekarpen gune izatea dugu helburu. Eta denon artean, euskara bera, komunikazio tresna den aldetik, lantzea eta aberastea. Maxixatzen herri komunikabidea hilabetekariak eta maxixatzen.eus atariak osatzen dute. Bi tresna horiekin komunitate bizi, dinamiko, sortzaile, erakargarri eta saretua osatu nahi dugu. Herriar guztion babesa eta lankidetzat beharko ditugu Maxixatzen Herri Komunikabidea denontzat kalitatezko tresna baliagarria izan dadin.

Bazkide egiteko bi aukera:

1 Bidali zure datuak administrazioa@ukt.eus helbidera

(bidali beharreko datuak: izen-abizenak, helbidea, herria, telefonoa, jaitze-data, helbide elektronikoa eta kontu zenbakia).

2 Webguneko formularioa bete eta bidali.

Izaera pertsonaleko datuak babesteko abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babeserako 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa jarraituz, jakinarazten dizugu, xedearen arabera biltzen diren datuak Urolako Komunikazio Taldearen titularitatepeko fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Era berean, jakinarazten dizugu, eskubidea duzula datu horietara jotzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurkatzeko, eskubide hori Urolako Komunikazio Taldeko Erregistro Orokorrean zuzendu ahal izango duzularik.

Non dago Zakelmari?



Urtarrileko Maxixatzen aldizkarian Zakelmari non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 28. orrialdean zegoen ezkutatuta. Maxixatzeneko bazkide guztien artean zozketa egin ondoren, Mila Etxanizek irabazi du Ogi Berri okindegiaren zortzi lagunentzako tarta. Datorren hilean, Herrixen elkartearen 50 euroko txekia zozkatuko du Maxixatzenek Zakelmari aurkitzen dutenen artean. Bidali erantzuna otsailaren 20a baino lehen, Kultur Etxeko postontzira edo maxixatzen@maxixatzen.eus helbide elektronikora.



ANBULATORIOAREN ONDOAN

KAFETEGI HANDIA DUGU: urtebetetze-ospakizunak, gosariak, meriendak, errazioak, pintxo potea asteazkenetan, txokolata txurroekin eta terraza zabala.



ESKAINTZA ZABALA: ogiak, opilak, gozoak, etab.

JAUSORO AUZUNEA, 5 behea • 20720 AZKOITIA • tel. 943-08 34 54
FACEBOOKa OGI BERRI AZKOITIA GOXO GOXO




INAUTERIAK 2021

KORONABIRUSA



TALDE HALANDIETAKO LEHEN POSTUA

ALDAERA BRITANIARRA



HURRENGO LITTERAKO FAVORITO NAGUSIA

TXERTOIA



HASIERAN KORONABIRUSARI TALDE HANDIETAKO LEHEN SARIA KENDUHO ZOLA LISTE ZEN BAINA AZKENEAN TALDE TXIKIETAN AURKEZTU BEHAR ZAN DU

BURUA GALDUTAKO ERIZAINA



EZ DU IZENIK EMAN LEHIAKETAN BAINA SARIA MEREZTA DALIKA

FERNANDO SIMON ETA GARFUNKEL



BARKALI

LUR LARA KAPTAINA



HUEN BOTEREA ELKARTUTA LUR LARA KAPTAINA DANKAGU!

"Ebakuntzek ez naute emakumeago egingo"

RINA CABEZA TRANSEXUALA

Zakilarekin jaio zelako mutiltzat hartu zuen munduak, baina neska da, eta 14 bat urte zituela halaxe adierazi zien ingurukoiei. Haien babesa badu, baina gizartearen onarpenik oraindik ez. Transexualitatea naturaltasunez hartzeko bide luzea gelditzen dela deritzo.

Testua eta argazkiak: **Aitziber Arzallus.**

Jaio zen une beretik gizartean ezarrita dauden arauak kontra egin behar izan die Rina Cabezak (Azkoitia, 2002). Neska izanagatik, mutiltzat jo baitzuten denek. Nerabezaro bete-betean erabaki zuen urratsa egitea: Rina zela, neska zela eta hala tratatzeko esatea. Hamaika hitzaldi eta elkarriketa eman ditu ordutik, eta behar den guztietan kontatuko ditu bere bizipenak, horrek transexualitateari ikusgarritasuna emateko balioko badu.

Nor da Rina Cabeza?

18 urteko neska azkoitiar bat, zakilarekin jaiotzeagatik mutiltzat hartu zutena bai medikuak eta bai gizarteak.

Betidanik jakin izan duzu zer gertatzen zitzaizun?

Neure borroka izan nuen. Aniztasunean hezten ez gaituztenez, ez nekien gertatzen zitzaidanari izena jartzen; ereduak falta nituen.

Nola eragin zizun horrek umetan?

Besteengandik desberdina sentitzen nintzen, baina ez dut oroitzapen txarrik; nire adineko beste umeek egiten zituzten gauzak egiten nituen.

Noiz erabaki zenuen neska zinela esatea?

14 urte nituela anaiari esan nion zerbait garrantzitsua kontatu behar niola, baina ez nuen lanik izan, berak bota baitzidan: "Zer, neska zarela?". Bazekin, neskatzat ninduen; oso une polita izan zen. Amari kontatu genion, eta hasieratik izan dut haren babesa ere. Aitari eta familiako beste kideei beranduxeago kontatu genien, baneukalako onartuko ez ninduten beldurra. Batzuei gehiago kostatu zaie, baina gaur egunean denek onartzen naute.

Lagunei nola kontatu zenien?

Kuadrillakoei Whatsappez kontatu nien. Taldean jarri nuen: "Rina naiz, neska bat naiz eta hala tratatzea nahi dut". Arratsaldean pipak jatera joan ginen.

Eta ikastetxean?

Tutoreari kontatu nion aurrena eta beste irakasleei gero. Denek ondo hartu zuten, Etikakoak izan ezik. Infernura joango nintzela esaten zidan eta itxuragabe tratatzen ninduen: maskulinoan hitz egiten zidan, beste izen batekin... Behin gelakideek egundokoak esan zizkieten, eta une hartan sekulako babesa sentituko nuen. Zuzendariak eta ikasketaburuak ere traba ugari jarri zizkidaten. Hezkuntza Sailak kasu



hauetarako daukan protokoloa ezartzeko eskatu nien: zerrendetan izena aldatzeko, posta elektronikoaren helbidea aldatzeko... Ikasturte bukaerara iritsi eta ezer aldatu ez zutenez, Hezkuntza Sailera deituko nuela esan nien. Orduan bai, berehala egin zituzten aldaketa guztiak. Orain, berriz, Donostian ari naiz ikasten, eta han ez dut inolako arazorik izan.

Askatzeak zertan aldatu zaitu?

Garai bateko lotsak galdu ditut, autoestimua handiagoa dut eta pozik bizi naiz. Ingurukoen babesak daukat eta hori da nik behar dudana eta oro har, transexual guztiok behar duguna.

Bazterketarik jasan al duzu transexuala izateagatik?

Begirazunak eta irainak jasatea tokatu zait, baina espero ez nuen jendearen babesak ere jaso dut.

Behin ingurukoei esanda, prozesu bat hasiko zenuen.

Zer pauso eman behar izan dituzu?

Familiako medikuarengana joan nintzen eta hark Zumarragako endokrinorengana bidali ninduen. Bai Azkoitia eta bai Zumarragan etengabe jarri zuten ezbaian nire nortasuna; behin eta berriz galdetu zidaten ziur ote nengoen esaten nuenaz. Hara joateko erabakia hartu banuen, nola ez nintzen ziur egongo? Handik Gurutzetako ospitaleko psikologoarengana bidali ninduten. Egun zuzenean hango endokrinorengana bidaltzen zaituzte, baina nik aurretik transen teorikoa gaingitu behar izan nuen: kolore urdina ala arrosa gustatzen zaidan, mutilak ala neskak gustatzen zaizkidan...

Transexuala nintzela baieztatzen zuen agiria eman zidan hark, eta harekin endokrinorengana joan eta hormonak hartzen hasi nintzen.

Kontrakoa erantzun izan bazenu zer?

Ezagutzen dut jendea bi urtez psikologoarengana bueltara ibili dena erantzun egokiak ematen ez zituelako.

Eta nolakoa da egin beharreko prozesu burokratikoa?

Nortasun agirian sexua aldatzeko derrigorra da gutxienez bi urtez hormonak hartzea. Ikaragarria da oraindik ere hori eskatzea, badaudelako hormonak hartu nahi ez dituzten transexualak. Eta orain dela urte batzuk arte ebakuntza egitea derrigorra zen; forentse batek baginaren sakonera neurtzen zizun emakumea zinen ala ez ebazteko.

Gaur egun prozesuaren zer unetan zaude?

Nortasun agirian sexua aldatzeko zain nago eta ebakuntzak egiteko itxaron zerrendan, nik hala erabaki dudalako. Hala ere, ebakuntzek ez naute emakumeago egingo.



Gurasoen babesik izan ez bazenu, izango zenukeen prozesuari ekiterik adin txikikoa izanda?

Ez, 18 urte bete arte itxaron beharko nukeen, horrek psikologikoki izan ditzakeen ondorioekin.

Hitzaldi ugari eman dituzu eta komunikabideetan ere behin baino gehiagotan aterata zara. Beharrezkoa iruditzen al zaizu aurpegia ematea?

Oso beharrezkoa. Komunikabide bakoitza publiko jakin batengana iristen da, eta nik eskatzen didaten guztietan kontatuko dut nire esperientzia, horrek transexualitateari ikusgarritasuna emateko eta naturaltasunez hartzeko bidean lagunduko badu. Lan handia dago egiteko. Esate baterako, ez dut uste komunikabideetan transexualitatea ondo jorratzen denik. Sexu aldaketaz hitz egiten da beti, baina transexualitatea ez da sexuz aldatzea: ni lehen neska nintzen eta orain ere bai. Kontua da gizarteak ez nauela neskatzat hartu. Transexuala izatea pertsona baten ezaugarri bat gehiago besterik ez da; ni neska transexuala naiz, baina informatika ikaslea ere banaiz, eta zapatuetan parrandara ateratzea gustatzen zait.

Zer esango zenioke Etikako irakasle hari?



"TRANSEXUALITATEA EZ DA SEXUZ ALDATZEA: NI LEHEN NESKA NINTZEN, ETA ORAIN ERE BAI"

"BIZI IZAN DUDANAK INDARRA EMAN DIT GAIZKI IRUDITZEN ZAIZKIDAN GAUZEI AURRE EGITEKO"

"BEGIRAZUNAK ETA IRAINAK JASO DITUT, BAINA ESPERO EZ NUENEN BABESA ERE BAI"

Pertsona bat gehiago naizela, besterik ez. Ez nuke harekin denbora asko galduko; aldatzeko prest ez dagoenari jardutea alferrikakoa iruditzen zait.

Eraso transfoboak eguneroko ogia dira.

Oraindik ere transexual askok beren buruaz beste egiten dute, jipoitu eta erail egiten dituzte eta lana bilatzeko arazo handiak dituzte. Hori da errealitatea, eta horrek esan nahi du gizarteak ez gaituela onartzen. Belaunaldi batzuk beharko ditugu horretara iristeko.

Informatikako irakasle izan nahi duzu. Lanean diskriminazioa jasateko beldurrik baduzu?

Hezkuntza publikoko irakasle izateko beste herritar guztiek dituzten aukera berdinak izango ditut, baina bai, kezkatzen nau lankideek eta ikasleek nirekiko izan dezaketen jarrerak.

Zein da LGBT mugimenduaren egoera Euskal Herrian?

Lanketa handiena haur transexualei eta haien familiei laguntzeko elkarteek egiten dute; Gehitu, Chrysallis eta Naizen izan daitezke adibideak.

LGBT mugimenduko talderen batean ibiltzen zara?

Ez; arazoarekin bukatzeko errora joan beharra dagoela uste dut, alegia gizarte eredu kapitalistarekin bukatu beharra dagoela LGBT fobiarekin bukatu nahi badugu. Hala ere, beharrezkoak iruditzen zaizkit LGBT, Harrotasunaren Nazioarteko Eguna eta horrelakoak, gure aldarrikapenak gizarteratzeko eta orain arte lortutakoari ikusgarritasuna emateko.

2019ko Andramaixetan Azkoitiko Herri Moimentuen txupinazoa botatzeko aukera izan zenuen.

Bai, primerako aukera iruditu zitzaidan, ez zelako egun seinalatu horietako bat.

Ikasle Abertzaleakeko kidea ere bazara. Nola bizi dituzue pandemia garaioak?

Pandemia bete-betean egonda ere, eskolara joatera behartzen gaituzte inolako osasun bermerik gabe; eta eskolak *online* jaso behar dituzten ikasleen kasuan, zenbaitek ez dute horretarako baliabiderik eta ez dizkiete horiek eskura jartzen. Horrek guztiak ezinezko egiten du hezkuntza duin bat jasotzea, eta horri gehitu behar zaizkio probeziaren eta indar polizialen areagotzea. Panorama ez da batere baikorra.

Manifestazio askoren buruan ikusi zaitugu eta ez duzu erreparorik zure iritzia plazaratzeko. Bizitzea tokatu zaizunak egin al zaitu horren borrokalari?

Agian bai, haurtzaroan ez bainintzen horrelakoa. Bizitzea egokitu zaidanak ikusarazi dit zer-nolako gizartean bizi garen, kontzientzia garatuarazi dit, eta indarra eman dit gaizki iruditzen zaizkidan gauzei aurre egiteko. ■

"Sukaldari bakoitzak jartzen duen irudimenaren menpe dago sukaldaritza"

MIKEL URIA SUKALDARIA


Mikel Uria (Azkoitia, 1966) hango eta hemengo hamaika sukaldetan lan egindakoa da. Duela 38 urte hasi zen sukaldari lanetan, eta dioenez, etxetik datorkio sukalderako zaletasuna. Donostiako Casa Alcalde jatetxean lanean hasi zenetik, hara eta hona ibili da lanean, nola atzerrian hala Euskal Herrian.

Testua: **Andoni Elduaie**n Soraluze. Marraskia: **Gorka Larrañaga**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

Bertso bat osatu ahal izateko bi puntu hobeezin bezala daude lotuta Mikel Uria eta *sukaldaria* hitza. "Baztarrikaldekua" dela ezeren aurretik argi utzi eta gero, Uriak aitortu du "betidanik" gustatu izan zaiola sukaldeko suaren bueltan elkartzea, eta nola edo hala "saltsan" aritzea. "Amona sukaldari ona zen, hala da ama ere. Gaztetatik eduki izan dut sukalderako jakin-nahia, izan tortilla, xerra edo hegaluzea prestatzeko. Beti gustatu zait probatzea; gero, gainera, aukera eduki dut profesionalki sukaldari bezala aurrera egiteko eta jarraipena emateko", eman du lehen azalpena Uriak. Duela ia lau hamarkada murgildu zen sukaldeko lanetan azkoitiarra. Lanbide Heziketako ikasketak amaitzeaz zituela, Donostiako Casa Alcalde jatetxean jantzi zuen lehen aldiz soinean sukaldeko mantal zuria. Uriak dioenez, lagun baten bitartez lortu zuen han lanean hastea. Ondo oroitzen ditu oraindik orain jatetxe hartako pasadizoak. Horietako baten berri eman du: "Casa Alcalden hasi nintzen lanean, eta emakume batek egiten zuen lan han. 62 urte inguru izango zituen, eta nik 18 bat. Kokotxak nola prestatzen ziren bikain azaldu zidan behin, eta ondo grabatuta gelditu zitzaizkidan urrats guztiak; ez

zait sekula ahaztu emakume hark emandako errezeta. Gainera, sukaldari oso ona zela gogoan dut. Gauza asko irakatsi zizkidan, eta mimo bereziarekin gogoratzen dut etxe hartako sukaldea".

Harrezkero, beste hainbat sukalde eta sukaldaritza mota ezagutu ditu azkoitiarrak. Besteak beste, Madrilen eta Sevillan (Espainia), Turkian, Londresen zein Belgikan lan egindakoa da Uria; baita Euskal Herriko hainbat jatetxetako sukaldeetan ere. Egun Zarauzko Batzokian ari da lanean, Mari Jose Bereziartuarekin batera. "Beste edozein arlotarako bezala, sukaldaritzarako ere oso aberasgarria da atzerrira irtetea; gainerako kulturak eta gastronomiak nolakoak diren ezagutzen dira", dio Uriak. Azkoitiarrari "baliagarria" izan zaio atzerrira joatea, jakiekin fusioak-eta egiteko ere. Produktu bat esku artean hartzean, sukaldariak harekin "zer prestatu dezakeen pentsatu" behar izaten duela azpimarratu du. "Bururatutako ideiak apuntatzen joan behar izaten da beti; esaterako, janariari zer saltsa egin diezaiokekan edota baporean, parrillan ala zartaginean egin behar dudana. Aukera posible asko ateratzen dira mahai gainera, eta horiek garatzen hasi behar izaten da ondoren. Bestalde, jaki batentzat beti erabili ohi





Sukaldaria, Miguel Indurain txirrindulariarekin.



Sukaldaria Johan Cruyff futbol jokalaria zenarekin.

izan den saltsaren bat sobratzen baldin bada, beste jakiren batekin probatzea ere suertatzen da. Hori da sukaldeak duen alderik dibertigarrienetako bat". Argiago azaltzeko, margolari baten lanarekin alderatu du sukaldeko lana. "Margolari batek bere margolanari zer kolore emango dion pentsatzea eta sukaldariok jakiarekin zer plater egingo dugun irudikatzea parekoak dira. Zentzu horretan, janariarekin era batera edo bestera jolas egiten dugu sukaldariok". Azkoitiarrari, baina, ez dio esfortzu handirik suposatzen jakien arteko nahasketak edo fusioak pentsatzeak. Horrela arrazoitu du Uriak: "Leku askotan lan egindakoa naiz, eta geure oinarriak abiapuntu izanda, arina egiten zait pentsatzea. Gainera, egun oso erraza da lan hori Internetarekin. Guk duela urte batzuk ez genuen abantaila hori".

Sukaldarien lana egun "behar bezala" baloratzen dela uste du Uriak, baina duela hamarkada batzuk ez zen horrela. "Orain dela 40 bat urte inguru, sukaldariak ez zuten indarrik, lantaldeko kide bat gehiago ziren besterik gabe; maîtres edo jantokiburuak zuten jatetxeetan protagonismoa. Gerora, ordea, euskal sukaldaritzak berria indarra hartzen hasi zen, eta Arzak, Subijana zein Argiñano sukaldari bezala hasi ziren nabarmentzen", adierazi du. Iraultzatxo horri esker, azkoitiarrak uste du sukaldari profilak inoiz baino indar handiagoa duela garaiotan. "Azken 35 urteetan itzuli handia eman du sukaldeak. Lehen jatetxe guztietan protagonistak jantokiburuak ziren; orain sukaldariak hartu dute rol hori", argitu du. Euskal Herriko hiriburu gastronomikoa zein den erantzuteko ez du zalantzarik egin: "Donostia da euskal hiriburu gastronomikoa. Donostian daude, besteak beste, Arzak, Berasategi eta Subijana. Gastronomikoki

Gipuzkoa beste euskal lurraldeak baino pauso bat aurrerago dago. Ez da gaurko kontua, lehen ere horrela zen".

Bertako oinarrien garrantzia

Uriaren iritziz, mundu guztian ari da jartzen "modan" sukaldaritzak. Modak izan ohi dituen berrikuntzen eta atzera buelten nahaspilan, ordea, Uriak indarra eman nahi izan dio produktuen mailari. Haren iritziz, plater bat egiterakoan gauza berrien zein ohikoen bila joan daiteke, baina abiapuntua beti lurralde bakoitzeko oinarria izanda. Azkoitiarrak bertako produktua kozinatzeari deitzen dio oinarria: "Lehengaiek onak izan behar dute; Euskal Herrian beti izan ditugu bertako ekoizleen lehengai onak. Baserritarrak-eta lan handia ari dira egiten egun, gastronomiaren munduan sartuta baitaude; oso garrantzitsuak dira sukaldariontzat. Atzerrian ondo egiten da sukaldean, baina Euskal Herriko sukaldeak garbia da".

Halaber, sukaldaritzak etenik gabeko eboluzio edo trantsizio batean dagoela uste du Uriak. "Beti ari da aldatzen; izan ere, sukaldari bakoitzak jartzen duen irudimenaren menpe dago sukaldaritzak. Irudimen maila altua dago egun". Eraldaketa geldiezin horrekin, baina, sukaldariarentzat badago inoiz galdu behar ez den kontu bat: oinarria. Horrela azaldu du azkoitiarrak: "Euskal Herriko kultura gastronomikoaren oinarriarekin joan behar da bestelako ideiak eta platerak garatzen. Hori da euskal sukaldeak duen gauzarik garrantzitsuenetakoa. Eskuetan dugun produktuarekin jolastu behar da, gauza berri asko ateratzen baitira". Azkoitiarrak uste du egun euskal gastronomiak "gero eta garrantzia



Uria, Amets Arzallus bertsolariarekin eta Jagoba Beobide zein Eñaut Zubikarai futbol jokalariairekin.



Sukaldaria eta Carlos Checa moto pilotua.

handiagoa" duela, "oinarrietatik abiatutako sukaldea" lantzen delako.

Sukaldaritza berritzailearen bila dabiltzan bezeroen kopurua handia bada ere, Uriak dio oraindik ere "lehengora jotzeko joera" dagoela. Haren esanetan, asko dira oinarritzko janariak eskatzen dituztenak. "Kontua ez da modernizatzea bakarrik; jendeak betiko oinarrietara asko jotzen du. Babarrunak, dilistak, gisatuak, parrilako jakiak... Eskari hori badago, eta egoten segituko du; hori ez da sekula hilko". Lurralde bakoitzak dituen tradizioekin eta kulturarekin lotu da baieztapena. "Beste kulturetan ere ohikoa da beren oinarrietara jotzea, ez da hemengo gauza bakarrik. Oinarrietara jotzeko joera galtzen den egunean asko galduko du sukaldeak", adierazi du Uriak.

Ardura handiko lana

Lana ardura izan ohi da beti, eta horrela da etxekoa ez den norbaitek jango dituen platerak prestatzen lan egiten duen sukaldari batentzat ere. Uriarentzat ez da bera janaria etxerako edo jatetxerako prestatzea. "Jatetxe bateko sukaldean lanean ari den sukaldari batek kontzentratuta egon behar du beti, lantzen ari den produktuarekin edozer gerta daitekeelako: produktua erre edota produktuen kopuruarekin pasatu. Etxean lasaiago egiten da sukaldean, ez baitago presiorik. Jatetxean lana jarraian egin behar da, ordena batean atera behar da guztia eta txukuntasuna zaindu behar da". Horrez gain, jatetxeko bezeroen iritziak garrantzia du beti. "Egun bezeroa harritu egin behar da janariarekin, eskatzen duen hori zuri dagokizu-eta lantzea. Platerakoa jan ondoren ezagutzen duzu bezeroaren iritzia, eta ona zegoela esaten badu poz handia hartzen da". Bezeroen esker on

mezuen artean bat du bereziki gogoan Uriak.

"Bezeroak negarrez nigana etorri, elkar besarkatu eta beren gurasoen sukaldea oroitarazi diedalako eskerrak eman izan dizkidate; hori guztia bizitakoa naiz, eta poztasun handia da. Nahiz eta horrelako zorion mezuak jaso, beti aurrera jarraitu behar da sukaldean, lana ez baita hor amaitzen".

Ardura horrek emandako poztasun uneak gogoan, hainbat sari eta aitorten batzuk jasotakoa ere bada Uriak. Madrilgo Zalacain jatetxean lan egindakoa da, eta hiru Michelin izar jaso zituen sukaldeko lantalde hark, tartean Uriak. El Amparon ere aritu zen, eta han ere beste bi Michelin izar jaso zituen jatetxeak; gauza bera Donibane Garaziko Les Pyrenees hotelean. Kalitatearen Q ziurtagiria ere aitortu zioten sukaldariari, eta jendeak iritziak ematen dituen Tripadvisor webgunean ere bi aitorten ditu. "Esanahi handia" dute horiek azkoitiarrarentzat. "Lana egin eta gero aitorten bat jasotzea beti da garrantzitsua. Jendeak, gainera, gaur egun asko begiratzen die errekonozimenduei edo sariei". Egindako lana pare bat pasadizorekin lotu du sukaldariak. Uriak gogoan du Chabeli Iglesiasen ezkontzan tarta "ia lurrera" erori zitzailela. Baina, anekdota guztien artean bereziena 1989. urtean bizi izan zuela dio sukaldariak. Espainiako Errege familiak Ingalaterrako Isabel II.a erregina gonbidatu zuen beren etxera, eta Uriari bazkari hartako sukaldarietako bat izatea egokitu zitzaion. "Espainiako Errege familiak kutxa bat atera zuen. Kutxa hartan urrezko ontziteria zuten: goilarak, sardeskak... Harrituta gelditu nintzen une hartan ikusitakoarekin", hasi da azaltzen. Bazkalostean, baina, komeriak izan zituzten, beren artean inork espero ez zuen gonbidatu bat ere bai baitzegoen. "Bazkaltzea amaitu zutenean, kutxan goilara bat



Telebista saio batean parte hartu zueneko.



Txorizo egosiaren epaimahaian, 2015ean.

falta zutela ohartu ziren, eta gutako norbaitek lapurtu zuela pentsatuta, guztiok goitik behera miatzeko agindu zuten. Polizia eta Guardia Zibila ere gela hartan egon ziren, eta gogoan dut gure nagusiak erreginaren familiari nola eskatu zion sukaldariok bakean uzteko. Kontuak kontu, azkenean ez zen agertu goilara hura", kontatu du.

Zentzumenen jokoan

Gaur egun, jatea ez da zapore kontua soilik. Zentzumenekin bat egiteko abagunea bilakatu da plateraren aurrean jartzea. Izan ere, zaporeaz gain, gero eta garrantzia handiagoa du plateraren itxurak, usainak edota ehundurak. Halere, Uriak dio plater batek eduki behar duen "esentzia" garrantzitsuen "produktuaren zaporea" dela. "Erreboiloak erreboiloaren zaporea eduki behar du, txuletak txuletarena... Jaki horien berezko zaporea beste osagai batzuekin nahasten bada, ziurrenik esentzia guztia galduko du. Aukerakoa da osagarri bezala platerari nahasketak gehitzea, baina produktuaren berezko zaporea mantendu egin behar da; ez zaio beste zerbaiten zaporea eman behar. Jakiaren ehundura, bere puntua, saltsaren elaborazioa... Siplea izan behar da".

Erreboiloa da Uriaren jakirik gustukoena. "Euskal Herrian arrain ona erabili izan dugu, eta erreboiloak duen berezko itsas zaporea, azala... Aparta da. Bisigua ere gustukoa dut, baina erreboiloak duen zaporea gogorxeagoa da, eta hori da gustatzen zaidana". Erreboilo eta zapore kontuak alde batera utzita, plateraren itxura zaintzea ere garrantzitsua da Uriarentzat. "Aurkezpen ona behar du plater batek. Adibidez, produktu bat merkea izan arren, ondo lantzen bada eta aurkezpen ona badu, jateko gogoia ematen du. Kontua ez da janaria platerera ateratzea eta kito. Jendeak begietatik ere jaten du". ■



Uria eta Imanol Aleson mendi lasterkari azkoitiarra.

Mikel Uria

- **Jaiotza urtea:** 1966.
- **Lanbidea:** Sukaldaria.
- **Funtsezko osagaiak:** sua, gatza eta bertako produktuak.
- **Arraina edo haragia:** arrain zalea naiz.
- **Sukaldeko lana amaitutakoan...**
Musika entzutea, lasaitasuna eta mendian ibiltzea ditut gustuko.

Etxetik ohiturak sortzen



UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOP. ELK.

B **K** **erlo**  **UH** **nuri** **ZH**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren kultur bonoei esker, batu **MAXIXATZEN**en proiektura eta 12 euroko deskontua izango duzu aurtengo kuotan.

S	T	I		A	L
	O				S
L			T		I
	I	O		L	
I		T	A		
		A		I	T

Otsaileko Sudokua

Bete lauki zuriak OTSAIL hitza osatzen duten letrak kontuan hartuta (O, T, S, A, I eta L). Gogoratu, hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta arean bakoitzeko.

Handitik txikira



Ordena itzazu freskagarri hauek neurriaren arabera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienari 6.

Jesus, Maria eta Jose

NESKA-MUTILAAA...



Margotu



engainaria

Bost zati hauetatik bakarra dago margotu behar duzun irudi horretatik hartuta. Zein da? Margotu ezazu zati hori ere.



Beti JAN eta beti gOSE

MAHAIAN DAGOEN EZER
EZ UKIT!


GONBIDATUAK
DITUGU ETA



Erreparatu ongi irudi hau. Hau da kuxidadeal bi minututan dena lardaskatu dute (esnea isuri, ketchupa bota, arrautza bat puskatu...), eta jan ere egin dute. Konturatzen al zara zer jan duten? Begiratu ongi eta asmatuko duzu.

DutXara!

Osatu lauki zuri bakoitzari dagokion irudia, honoko domino zati honek zentzua izan dezan.



Zu bai Hamalau!

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamalau dira guztira.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

COVID-19aren txertoa



JOSE RAMON ARANBARRI

Amaitu da 2020. urtea. Matxoaren 11n OMEk COVID-19aren pandemia deklaratu zuenetik, gure egunerokoa eta bizimodua erabat aldatu dituen urtea. Horrek inoiz imajinatuko ez genituen arauak betetzera behartu gaitu, baina bukaeran itxaropen-argia ikusi dugu txertoaren garapenarekin.

COVID-19aren aurreko normaltasuna itzuli ahal izango al gara? Erantzuna ez da zaila: nolabaiteko normaltasunera itzultzeko eta bizi izan dugun egoera honekin bukatzeko behar-beharrezkoa da "immunitate kolektiboa", "artalde immunitatea" edo "biztanleriaren immunitatea" lortzea.

Immunitate kolektiboa, definizioz, populazio batek agente infekzioso jakin batengandik babesteko lortu behar duen immunitate balioa besterik ez da. Adostasun zientifikoaren arabera, hori lortzeko beharrezkoa da populazioaren %70a gutxienez birusaren aurka immunizatzea. Kontuan hartuta hori lortzeko bi modu daudela; bata, infekzio naturala, hots, koronabirusa-rekin kutsatzea eta bestea, txertoaren bidez lortzea. Ebidentzia zientifikoa argia da: txertoa da pandemia epe ertainean amaitzeko era bakarra.

Txerto gehienak birus ahuldu batekin edo haren zati batekin egiten dira, gure immunitate-sistemak antigorputzak sor

ditzan; txerto horien garapen prozesua luzea da, batez beste lau eta zazpi urte artekoa. COVID-19aren aurkako txertoaren garapena, baina, izugarri bizkortu da. Horren arrazoia da, besteak beste, SARS-CoV-2aren aurkako txertoa birusik ez duen txerto mota berri bat dela. Txerto honek gure gorputzean birusa edo haren zati bat injektatu beharrik ez du; antigorputzak sortuko dituen erantzun immunitarioa eragiteko, gure zelulei proteina bat sortzen irakasten dio, laborategian sortutako ARNm (azido ribonukleiko mezularia) sintetiko bat erabiliz. Beraz, birusik ez duenez, txerto segurua da.

Txerto mota hau, berria bada ere, ez da ezezaguna; txertoetan ARNm erabiltzen duen metodoak 90eko hamarkadan hasi ziren garatzen, baina jauzi kualitatibo bat eman dute azken hamabost urteetan, hainbat birusen aurkako txertoen bertsioetan aztertuz. Txertoetan ez ezik, ARNm teknologia minbiziaren aurkako edota esklerosi anizkoitza gisako gaixotasun autoimmuneen ikerketetan erabili ohi da. Aurreko lan horiek erraztu dute COVID-19aren aurkako txertoa hain denbora laburrean prest izatea.

Baina azkartasun horrek eragozpen bat badauka: oraindik ezin da jakin zenbat irauten duen txertoak eragindako immunitateak.

Uztailaren 27an hasi ziren koronabirusaren aurkako txertoaren frogak, eta jakina denez, gaur arte immunitateak bere horretan jarraitzen du, baina oraindik ezin da jakin zenbait iraungo duen, hori jakiteko behar den denbora igaro ez delako.

Txertoaren helburua arrisku gehien duten gizakien bizia salbatzea da. Garbi daukat txertoaren onurak askogatik gainditzen duela gaixotasuna izateko arriskua, baita txertoa pandemiaren amaieraren hasiera dela ere, berehala izango ez den arren.

Badago txertoaren kontrako jarrera duen jendea. Horiek ez dute txertatzerik nahiko; beren eskubidea da hori, noski. Baina norberakiko eskubide horrek gizartearen osasunarekiko eskubide ukaezinarekin talka dakar: pertsona partikular baten nahi ez horrek, gizarteari, kolektibitate global gisa, kalte egin diezaioke, eta ezin dugu ahortzi Osasunerako eskubidea Giza Eskubideen Adierazpenaren 25. artikuluan jasotako oinarritzko giza eskubidea dela.

Horregatik, bizi garen Osasun Publikoko arazo baten aurrean, immunitatea lortzeko bi modu bakarrak infektatu ala txertatu direnean, garbi daukat osasun kolektiboko eskubideak lehentasuna izan behar duela norberaren osasunerako eskubidearen gainetik. ■



NAGUSIA 61 • 943-08 30 32
www.ita-kun.com • azkoitia_ita-kun@hotmail.com



ALDAKO

**SARE ETA INFORMATIKA
ZERBITZUAK**

SAREAK, IRTEERAK ETA
ORDENAGAILU, MUGIKOR
ETA TABLET KONPOKETAK

Kale Nagusia, 46 • 20720 Azkoitia
Tel. 943-08 36 14 • 629 09 92 76
aldako.informatika@gmail.com

ZERBER BURDINDECIA

BEHAR DUZUNERAKO ALOR GUZTETAKO GAIK AURKITUKO DITUZU
GURE BURDINGIAN: INDUSTRIA, ELEKTRIZITATEA, MARGOLARITZA, ETXEA,
ITURGINTZA, BRIKOLAJEA ETA ABARREKO TRESNERIA; HALA NOLA,
TORLOJUAK, ERRODAMENDUAK, SARRAILAK, GILTZAK, ETA ABAR...

**ZERBERREN
"ZER BER ETA HURAXE"**

NAGUSIA, 39 • 20720 AZKOITIA • 638 35 31 25
www.ferreteriazerber.com

zur

OGITARTEKOAK
SANDWICHAK ETA HANBURGESAK
ENTSALADAK
RAZIOAK
GARAGARDO ETA ARDO ESKANTZA ZABALA
TERRAZA HANDIA ZUZENKO EMANALDIK
KALE NAGUSIA, 68 • 943-85 12 75

ARTISAU PIZZAK
ENTSALADAK
PINTXOAK
PLATER KONBINATUAK
RAZIOAK
OGITARTEKOAK
ARDO ESKANTZA ZABALA
SOINU ETA ARGI EKIPO
PAREGABEAK

LARUNBATETAN 06:00 ARTE IREKITA

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

LATZ
TABERNA

ESKELA ZERBITZUA

Maxixatzen.eus
webgunean
eskela jarri nahi?

Jarri harremanetan:
688 84 63 51
erredakzioa@maxixatzen.eus
Kale Nagusia, 62



salestarrak
Floreaga Ikastetxea

Floreaga
SALESTAR IKASTETXEA

FAMILIAK ETA IKASTETXEA,
BAT EGINDA HEZTEN

KONFIANTZAREN PEDAGOGIA
Zatoz, ezagutu gaitzazu

*'Heasleak zoriontsu izatearen
giltza konfiantzan dagoelako'*

Izarraitz z/g
AZKOITIA • 943-85 30 43
floreaga@floreaga.eus
www.floreaga.eus



JARRI HEMEN ZURE IRAGARKIA!

Egunean hogeita bost ordutz, astean zortzi egunez

TESTUA: MAILO OIARZABAL

ARGAZKIAK: MAILO OIARZABAL ETA
UTZITAKOAK

Azkoitiaren historian izen asko daude gordeta, beste asko faltako diren bezala. Gordetakoen artean askoz gehiago dira gizonezkoenak. Emakumeen zerrenda meharragoan jasota dago Nerea Zubizarretarena (Azkoitia, 1949). Azkoitiko lehendabiziko emakume alkatea izan zen bera. 1995etik 2003ra, bi agintaldi osatu zituen alkatetzan.

"Beti" eduki izan du politikarekiko interesa Zubizarretak, "batik bat, abertzaletasuna". Interes horrek "konprometitzera" eraman izan du, "hemen, haruntzago edo honuntzago". 1987an afiliatu zen EAJn, ez gaztetan, "ez lehenengo berotasun hartan", baina ordurako egin zuen bidea herrigintzan eta politikan. Sindikatu Bertikalean ibili zen, "ELA klandestino zelako"; Francoren diktadura garaian zegoen legezko sindikatu bakarra zen Organización Sindical Españolari esaten zitzaion Sindikatu Bertikal, gainerako sindikatu guztiak debekatuta zeuden. "Han sartuta geunden ELAkoak ginenak", kontatu du Zubizarretak.

Kimun ere hainbat urte egin zituen azkoitiarrak, 1960ko hamarkadaren azken urteetan hasita. "Azkoitian Parrokiaren babesean sortu genuen elkarte

zen Kimu", azaldu du. "Orduan, ez zegoen besterik; hiru elkartzuz gero, atxilotu egiten zintuzten. Orain kontatuta, ipuina ematen du, baina hura bizi egin behar zen, e?". Jose Maria Galarraga apaizak lagundu zien elkarte berria 'formaltzen': "Hark eman zizkigun lokala, babesa eta konfiantza". Aste kulturalak, hitzaldiak, liburutegia, dantzak... "gauza asko" antolatzen zituzten Kimun. Gero bere senar izango zenak Kimuren garaian hitzaldiak eman zizkiela ekarri du gogora Zubizarretak; emakumeek legez ia eskubiderik ez zuten sasoi hartan, 'Emakumeak legearen aurrean' izeneko hitzaldia eskaini zien, hain zuzen. "Pentsatu, zer kurioso. Apunteak gordeta dauzkatz", dio Azkoitiko alkate ohiak.

EAJn afiliatu ondoren, "poliki-poliki" joan zen bidea egiten, "gauza baterako eta besterako, zerrendak osatzeko, bertako dinamikan gauza asko egiten ziren orduan". Udal hauteskunde zerrendetan izan zuen bilakaeraz hitz egin du: "Lehen aldian atze antzean sartu ninduten. Gero, bigarren postuan. Eta hurrena,

**ZERBAIT EGITEKO
ARDURA HARTZEN
DUENEAN
BURU-BELARRI
ARITZEN DA HORRETAN**

lehen tokian jarri nindutenean... Nik ez nuen nahi". Alkateorde izana zen aurreko lau urteetan, 1991tik 1995era, Ramon Unanue alkate zela. Udalaren barne funtzionamenduaz "asko" ikasteko balio izan zioten lau urte haiek. Ogasun batzordean egon zen. "Bizi osoan egon naiz denen diruak zaintzen", dio, umorez. Horrez gain, udal batzordeetako "bilera guztietara" joaten zela azaldu du, ez bakarrik Ogasunekoetara. Alkateorde gisa bizitako esperientzia aberasgarria izan zitzaion arren, kostatu egin zitzaion alkategai aurkeztea onartzea. "Nik ezetz eta ezetz, baina behin eta berriz eskatzen zidaten. Hura oso gogorra egin zitzaidan", aitortu du, hautagaitza onartu aurreko garaia gogoratzean. Zubizarretak ez zuen nahi, baina alderdiaren ekiteak eta etxeko animoek eskaintza onartzera eraman zuten azkenean. "Lehen lerroko zerarik ez nuen nahi. Baina, gero, asko gozatu nuen lanean, asko".

Zerbait egiteko ardura hartzen duenean "buru-belarri, egunean hogeita bost ordutz eta astean zortzi egunez" aritzen den horietakoa dela dio; "gehiegi, agian". Alkategai aurkeztea onartu aurreko une txarrak atzean utzita, bi agintalditan Azkoitiko Udalaren buru bizitako esperientzia ez dauka saltzeko Zubizarretak; eta eskertuta agertu da alderdiarekin, aukera eman ziolako, eta "herritarrekin",



haien botoei esker bitan irabazi zituelako hauteskundeak gehiengo osoarekin. "Lehendabiziko emakume alkatea, eta gehiengo osoarekin". Azkoitian, EAJren alkatetzak gehienez zortzi urterako izan ohi direla kontuan izanda, Zubizarretak bazekien, behin alkate hautatua izanez gero, hurrengo udal hauteskundeetan ere bera izango zela jeltzaleen alkategaia. Hori barneratuta, lehen aldiko buruhausterik ez zuen izan bigarren aldian aurkezteko. "Gainera, martxa hartuta neukan".

Lanaren emaitzaren poza

Alkate izan zeneko urteez hitz egiten duenean, erraz nabari zaio Zubizarretari egia dela gozatu egin zuela alkatetzan. "Egiten dituzun gauzak ikusteak" ematen zion poza, ahaleginaren emaitzak. "Baina saiatuta, e?", gaineratu du berehala, lanaren garrantzia azpimarratuta. "Jo atea hemen eta jo atea han" ibili beharra zegoela dio, helburuak gauzatu ahal izateko: "Beti esan ohi dut, eskeko fraideen antzera ibiltzen nintzela".

Herriarrekiko hartu-eman estua da alkate izan zen garaitik gordetzen duen oroitzapen onetako bat. "Jendearengandik oso hurrean nengoen, jendea ikaragarri etortzen zitzaidan alkate nintzenean. Ez zeukan zerikusirik alkateorde nintzenekoa erekin, beste gauza bat zen. Ardua eta jendearekiko harremana, oso ezberdinak ziren", dio.

Alkatetzan bete zituen bi agintaldietan udalean osatu zituzten lantaldeak ere gorapaitu ditu: "Alderdi barruan osatzen genuen programarekin aurkezten ginen

hauteskundeetara, eta programa hori betetzea izaten zen gure egitekoa. Bete, eta gainditu ere egiten genuen. Gozatuko ez genuen ba! Baina lana egin ere halaxe, e, eta taldeak ere halakoxeak. Akaberan, pertsonak egiten dute dena. Hori gero eta garbiago daukat nik". Gehiengo osoa izan zuen EAJk Azkoitiko Udalean Zubizarretaren bi agintaldietan. Hori beren programa eta asmoak aurrera ateratzeko lagungarria izango zitzaizela esanda, gehiengo osoak txarrak direla esaten dutenekin batere ados ez dagoela azaldu du alkate ohiak. "Gehiengo osoak txarrak dira ez dituenarentzat. Gehiengo osoek ez dute zertan, berez, txarrak izan behar. Jendeak eman dizkizu botoak, aurkeztu duzun programa hori nahi dute; beraz, bete ezazu fin programa", arrazoitu du bere iritzia. "Hala ere, eta horrexegatik", oposizioko alderdiekin adostasunak bilatzen saiatzen zirela kontatu du; ahalegin horrek zerbaitetarako balio izango zuela uste du, udal aurrekontuak kontrako botorik gabe onartu zituztelako Zubizarretaren agintaldiko zortzi urteetan. "Eta hori asko da", alkate ohiaren esanetan.

Izan ere, "haiek garai gogorak" izan zirela gogoratu du Zubizarretak. Une zailetan "baretu, tenplatu" egiten zela dio, "bestela ez zegoen segitzarik". Etxekoek nola sufritzen zuten ikustea egiten zitzaion zailena. Ez dauzka ahaztuta momentu gogorak, baina nahiago du haietan ez sakontzea. Egindakoen pozak eta oroitzapen onak gehiago ditu gordeta txarrak baino, hala ere. Insausti jauregia berreskuratzea, saihezbidea, industrialdeak,

babestutako etxebizitzak, eskola mapa iraulita Azkoitian batxilergora arteko hezkuntza ziklo guztiak ezartzea, uholdeak eragozteko ibaiko obrak... proiektu asko gauzatu ziren Azkoitian Zubizarretaren agintaldietan, eta horietako bakoitza lortzeko borrokatutakoaz eta lorpen bakoitzaren pozaz pasioz hitz egiten du alkate ohiak. Orbanak aipatzeko, berriz, galdetu beharrik ez dago: berak kontatu du Oinartxoko industriagunearen aferarekin "sufritu" zuena. Pozetara itzulita, Jorge Oteizarekin edo Pedro Irizarrekin izandako hartu-emanak dira oroitzapen berezien kutxan gordeta dituenak.

"1991n udalean sartu nintzenetik 2003an alde egin nuen arte, ezezagun gelditu zen herria", dio Zubizarretak, Azkoitiak bizi izan zuen eraldaketa azpimarratzeko. Eta berehala gaineratu du: "Baina hori ez da nire meritua, e? Ez horrela hartu. Momentua tokatu zen halakoxea".

Udala utzi zuenean Azkoitiko udal politikatik guztiz urrundu zela dio. Gipuzkoako Foru Aldundian lan egin zuen erretiroa hartu aurretik. Eta "geldirik ezin egon", eta Bibliotekonomia ikasketak egin zituen UNEDen. Gaur egun, herriko Bizenta Mogel elkartearen dabil, "alderdiko lanetan" jarraitzen du -Gipuzkoako EAJren epaimahaiko kide da-, eta berak dion bezala "caballerita" ere bada, Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen ohorezko bazkide baita. Alkate zela egindako lanaren aitortzetako bat du hori, atzera begira jarritakoan azaleratutako oroitzapenen antzera. ■■■



Nerea Zubizarreta Azkoitiko alkatea zenean.



Ibaiko obren inaugurazioa, 2000. urtean.



Jorge Oteizarekin 1997. urtean, Azkoitiko udaletxean.



Pedro Irizar linguistarekin.



Nerea Zubizarreta elkarriketa egiteko garaian.



Egarritz ezin ito

Azkoitiko iturrietatik ezagunenetakoa Barriken iturria da. Herrian, baina, iturriak hamaika daude; inguruko mendietan ur txorrodata ugari aurkitzen dira, baita kale eta auzoetan ere. Galdutakoak ere badira makina bat. Inork ezin du esan Azkoitian ibili eta egarriak ito denik. Adibide gisa, hona hemen gutxi batzuk irudietan. Testua: **Nerea Uranga**. Argazkiak: **Ixidro Arrieta**.



LANDAKANDAKOA

Landakandako San Antonio ermitaren ondoko iturria da irudian agertzen dena. Altzibarko biribilgunearen ondoan dago bai ermita baita iturria ere.

OLOTZAGA

Aizpurutxorako bidegorritik gertu dago Olotzagako iturria. Zumarragarako errepidean, Elosurako bidegurutzearen parean, Urola ibaia zubitik zeharkatu eta bestaldean.

Ur freskoa edatearekin batera, lasai ederrean lagunartean maxixatzen jarduteko aulkiak ere badaude bertan.



AUZOETAN, NONAHI

Iturri berri asko daude herriko auzoetan. Irudian agertzen dena, hain justu, Altzibar auzoan dagoena da. Sakagailua duten iturri hauetan, neguan izotza egiten duten egunetan, ura moztu egiten dute. Bestela, ura izotzu eta matxuratu egiten dira.



SAN JUANGOA

San Juango iturria topatzea nahiko nekeza da egun. Azkoititik Loiolarako bidegorrian, bidezidor batetik jaitsita aurkitu daiteke, baina belarrak eta landarediak nahiko estalita dute gaur egun.



HERRIKO PLAZAKOA

Kontzejupearen ondoan dago plazako iturria, udaletxe azpian. Garai batean iturri zahar txiki bat zen bertan, 1950eko hamarkadan, baina, gaur egungo iturri neoklasikoak ordezkatu zuen. Izarraizko marmolez egina da.



METAL URA

Metal ura ematen duen iturria da goiko irudian agertzen dena. Altzibarretik Urrategirako bidean dago, Etxe-Alai etxearen eta Alberdi mekanizatuak tailerraren bitartean.



UXERREKOA

Uxerreko iturria, izen bereko errekaaren ondoan dago, Santa Klara konbentuaren atzealdean. Antoxina ere badago bertan iturritik ura edateko.



KALEAN

Altzibar etorbidean dagoen iturrietako bat da. Kale Nagusiak eta Altzibar Etorbideak bat egiten duten bidegurutzean dago.



ARRABALEAN

Santa Klarako Arrabalean, San Jose basilikaren (Granada Egako dukearen panteoia) ondoan dagoen iturria da irudikoa.



IZKITURRIKOA

Izkiturri Izarraitz mendikatean dago, Kakuterren atzealdean. Aittolatik Erlorako bidean, tragoxka bat edateko edota kantinplora betetzeko toki paregabea da. Goiko argazkia, joan den urtarrilaren hasieran ateratakoa da, iturria ia ez da antzeman ere egiten.



ATRASKUKOA

Azkoitiko Parrokiaren atzealdean dagoen iturria da, izen bereko tabernaren aurrean. Garai batean, sakagailurik gabeko iturria zen. ■■■


Herriko talentuak

INIGO ANTSORREGI DIEREZ

2020. urtea amaitu (eta ahaztu) aurretik, Bigoterik Gabea taldearen *K-Baret* lanaz gozatzeko aukera izan nuen. Antzerki talde honen aurreko lanak diren *Rise And Shine* eta *Shine again* ikusi gabe gelditu nintzen, zoritxarrez. Orain, haien azken lana ikusi ostean, handiagoa da aurreko eskaintzak ezin ikusi izanaren pena.

Abenduko egun hartan, Azpeitiko Soreasu antzokia Baztartxo bilakatu zen, ikus-entzule ia guztiak azkoitiarrak ziren. (Bide batez: noiz utzi behar diete gazte hauei beren herrian antzezten? Herriko kultur eragileak ezin badira babestu, gero alferrik da diskurtso merkeekin etortzea. Ulertu behar duenak ulertuko duelakoan, besarkada bat).

Antzezlanari hasi bezain pronto, konturatu nintzen apustu ausart baten aurrean nengoela. Urte asko daramatzat antzerki amateurrean, eta badakit bidean aurkitu daitezken zailtasunak zenbatekoak eta nolakoak diren. Ez dituzu talde profesional batek dituen baliabideak, parte hartzen duen jendeak pasioagatik edo "hobby" gisara hartzen du dena. Beraz, 30 pertsona inguruk parte hartzen duten *K-Baret* erronka handia iruditu zitzaidan ikusle gisan. Baina talentua dagoenean,



erronka handienak ere gainditu daitezke.

Ikuskizunaren hasieran, Aitor Aierdik egiten du ongietorria, Cedric-en paperean. Hasteko, haren lan ona azpimarratu nahi nuke. Ez da erraza narratzailearen rola betetzea, eta zenbait lanetan soberan egon daiteke. Kasu honetan, baina, Aierdiren lana txukuna da, eta obran egiten dituen ekarpenak ondo daude, gehiegikerian erori gabe.

Behin ongietorria jasota hasten da antzezlanari. Pertsonaia zaparrada dator. Ez da inoiz erraza izaten hainbeste pertsonaiaekin trama kantitatea ondo neurtzea. Baina kasu honetan, Xabier Barkerok eta Kari Alberdik lan ona egin dute gidoia idazterakoan. Trama asko daude, bai, baina narrazioa dinamikoa da, eta publikoak garbi jasotzen du pertsonaia bakoitza zer egoera-

tan aurkitzen den. Baliteke batzuetan (eta hau gidoilari gisan esaten dut, nahiz eta gaur kritikariz mozarrotu naizen) informazioa gehiegi errepikatzea... Hau da: gidoilariok badugu joera gauzak errepikatzeko, ikus-entzuleari esan nahi dioguna garbi uzteko asmoarekin edo, pertsonaien akzioak ikustearekin nahikoa denean. Baina garbi utzi nahi dut detaile txiki horrek ez duela emaila zapuzten.

Ezin baita zapuztu. Obrak irauten dituen bi orduak hegan pasatzen dira, pertsonaien arteko tirabirak musikako piezekin txandakatzen diren bitartean. Antzezlanari eramangarria izatearen meritua ez da musikarena bakarrik, ordea. Aktoreen lana maila oso onekoa da (bereziki nabarmendu nahi nituzke June Urain eta Idoia Aginagalde, besteei meritua kendu gabe, noski). Antzerki amateurrek beti sufritu izan du aurreiritzi krudela, eta askotan espero izaten da aktoreen maila ez dela oso ona izango. Poza ematen dit *K-Baret* obran aurreiritzi hori birrintzen duen horrenbeste jende ikusteak.

Amaileran, beraiek konposatutako eta idatzitako *K-baret* abestiak hunkitu egiten du bat. Eta teloa ixten denean, zutik jarrita txalo egitea beste erre-medorik ez du ikus-entzuleak. Zorionak, bihotz-bihotzez, Bigoterik Gabea taldea osatzen duzuen gurtzio! ■■■■

MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera



Atari digitalak



Telebista

07



Identitatea
eta marka irudia

06



Diseinu
lanak

05



Webguneak eta
marketin
digitala

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

02



Estrategia eta
planifikazioa



B

K

erto



KH

hnt

ZH

Hitzaren gozoa



IXABEL JAUREGI ALBERDI

Erege egunean, eguzkiak epel ferekatzen zuen Balda plaza. Hiru haur, bost bat urtekoak, zapi zabalean erdi etzanda, liburu loditxo baten bueltan, kontu kontari. Ania, June eta Enaitz. Irakurtzen ba al zekiten galdetuta, batek baietz erantzun zidan, baina liburu hartako letrak ezetz. Dinosauroen marrazki biziz beteta zeuden orriak, testua azalpenekin. Irakurtzen hasi nintzaian, izenak, izenburuak... Liburuaren jabeak, etxean, gurasoekin irakurtzen zituela ihardetsi zidan.

Bizpahiru urteko Lizar *Ruleta de la suerte* ikusiz joan omen zen letrak ezagutzen, eta irakurtzen hasi. Asierrek, denboraldi bat gaixo egon ondoren, auzoko heldu batekin aritu eta bere gelakideen pare jarri zen, eta kalean "farmacia" irakurtzean egundoko aurkikuntza egin zuela aitortu zidan haren amak. Aitorrek, Irureta altzari erakusketaren paretik autoz pasatzean, oihiu egin eta "ipupetz" jartzen du esan zuen. Maiz, ume haien esperientziaz gogoratuta, nolabaiteko zirrara sentitu eta irakurzaleak izango ote diren galdetzen diot neure buruari.

Eskoletako geletan prozesu hori egunero ikusten eta bizi dutenekin hizketan aritu izan naiz. Azaldu izan didate zer garrantzia duten haur bakoitzaren erritmoak,

interesak, etxean uztarri beretik joateak... Ikasgeletan batez ere ipuinak irakurtzen dizkiete.

Ipuinen mundua hain zabala denez, ildo bereko bi proposatzetuko ditut, alegien sailekoak. Bata, Bixenta Mogelen *Ipuin onac* eta bestea, Jean de la Fontainen *Alegiak sudur ondoan begiak*. Jesus Mari Mendizabalek itzulitako bilduma horrek bereizgarri bat du, alegiaren bukaeran bere adierazpena bertso batean azaltzen dela (Kontsultatu: <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/liburutegia/view/4221-bertso-doinutegia>).

Gurasook aukeratu zer kontatu, zer irakurri. Gelaz kanpo makina bat aukera dute haurrek testuez gozatzeko: Pirritx, Porrotx eta Marimototsen abestiekin; Aizkibel udal liburutegira etortzen diren ipuin kontalarietara eta hango aleen aukerarekin; *Berría* egunkariaren larunbateroko *Mantagorri* lau bat liburu aholkatzen dituzte; eta, ahazteke herriko liburu dendeekin: Hizki, Amaitz, Lujan... Amazon alboratuta.

Erein dezagun irakurle-gaiengan, irakurzaletasunaren altxor-hazi preziatua.

Ez ahaztu irakurzaletasuna sustatuz, irudimena, sormena, sentimenduen eta gustuen saltsa txertatzen ari zaretela; alegia, plazera lortzeko iturria jorratzen ari zaretela. ■

Bertsoa paperean

Gaia: Dena desberdina
Bertsolaria: Naia Arrizabalaga.
Doinua: Aita izena kata beharrak.

Hilabetea hasi orduko
Santa Ageda bezpera
inauteriak otsail erdian
parrandarako aukera
ez parrandarik ta ez festarik
ta pandemia aurrera
noizko itzuliko ote da hau
dena normalitatera
zenbat aldatu zaigun guztia
urte batetik bestera

Zein handia den Covidak hemen
sortutako eromena
apurtu dira aspalditikan
geneuzkan mila eskema
zein papel zaila langabe edo
baita ostalariena
nahiz ta festarik ez den izango
hilabetetan barrena
ez daigun ahaztu geure eskutan
dagoela ia dena!



BIYONA

BARNE DISEINUA ETA ERREFORMAK | INTERIORISMO Y REFORMAS

etxea sukaldea
bainugela ...
leihoak
etxeko altzariak

eraberritzekotan?



Bisita gaitzazu



Santiago auzoa, 12 · ZUMAIA · ☎ 943-14 34 43 · www.biyona.net

AZKOITIKO GIDA

Azkoitiko establezimenduen, enpresen eta elkarten papereko eta sareko gida arloka sailkatuta.

Herritarrek informazio eguneratua eta kontrastatua topatuko dute bertan.



PAPEREKO GIDA

- Erosoa eta erabilgarria.
- Informazio guztiarekin.
- Banaketa masiboa herrian.



SAREKO GIDA

- Maxizatzen.eus atarian integratuta.
- Gailu ezberdinetara egokituta.
- Geolokalizatuta.
- Telefonotik zuzenean deitzeko aukerarekin.



MAXIXATZEN

EZ GERATU KANPOAN

MILAR LARRAMENDI

Etxetresna elektrikoak



Julio Urkijo Hiribidea, 16 - Azkoitia • 943-85 18 97 • www.milar.eus



KOPISTEGIA

Inazio Iriarte, 1 • 20720 **AZKOITIA** • (Gipuzkoa)

Tel.: 943 85 20 52 • Faxe: 943 85 20 91

j.artetxe@flkkopistegia.es